



**Hiztegitxo**


**Hobeto irakurtzen laguntzeko**




<b>abagune</b> 'egokiera, momentu aproposa'	«...bere bakartasunean iguriki behar zuen zeruak edo zoriak eskainiko zion <b>abagunea</b> ...»	(35)
<b>aburu</b> 'ustea, iritzia'	«Barregarri zen, pentsa zer <b>aburu</b> zukeen andere gazte apainak atso arront, zantar horretaz.»	(16)
<b>adatsa</b> 'ile multzo luzea'	«Haren <b>adats</b> horia, gauerako deslotua, erortzen zitzaion sorbaldara...»	(20)
<b>agerrean</b> 'aurrean'	«...bere zorion ilortuen intziriak, bere atsegin okaztagarrien oroipenak ohiltzeagatik edaten jarraiki zen, edonoren <b>agerrean</b> .»	(17)
<b>agintza</b> 'promesa'	«...bizi berri baten gezurrezko <b>agintza</b> eta hitz-emateek ergelki liluraturik...»	(18)
<b>agitu</b> 'gertatu, topo egin'	«...sukaldean sartu zen berehala, haiekin <b>agitu</b> nahi izan ez balitz bezala...»	(44)
<b>aiduru</b> 'itxaroten, zain'	«...egun guztian <b>aiduru</b> egon ondoren.»	(21)
<b>aileki</b> 'jakingo balu!'	«Edozein leialtasunen zamaz <b>aileki</b> halaber bere burua askatzen!»	(15)
<b>aio</b> 'desioa'	«...bere <b>aio</b> gartsuak gogoia errerik ametsetan iragan zituen azkenengo egun horietan.»	(15)
<b>aipu</b> 'aipamena'	«Ez zuten beste eskola <b>aipurik</b> izan.»	(32)
<b>aita besoetako</b> 'aitabitxia, aita pontekoa'	«...so egin zion <b>aita besoetakoari</b> irribarre herabeti batekin.»	(13)
<b>aitzin-iritzi</b> 'aurreiritzia'	«...hura ez zen giza-saldoaren <b>aitzin-iritzietara</b> makurtuko.»	(14)
<b>aizina</b> 'denbora'	« <b>Aizina</b> zuen beraz.»	(20)
<b>aizun-irudi</b> 'imajina faltsua, eritzi okerra'	«...bere buruaren <b>aizun-irudiari</b> uko ez egitearren.»	(12)
<b>alatu</b> 'gogoan erabili, hausnartu'	«Ez zituen noski ulertuko hauraren adimen gazteak gizonaren gogoak <b>alaten</b> zituen zorabiozko pentsamendu horiek.»	(15)
<b>antzaldatu</b> 'itxuraldatu'	«...lurra, haizea eta ura <b>antzaldatzen</b> eta moldatzen dituen...»	(13)
<b>antzetsu</b> 'trebea'	«...Theresa xiki hori aski <b>antzetsua</b> izan zela lo zegoelakoa egiteko...»	(26)
<b>are</b> 'gehiago'	«Begiak erdi itxita, uzten zuen musika jainkozko hori <b>are</b> durundatzera...»	(30)
<b>arnegatzaile</b> 'haserrezalea'	«...jainko zaharraren <b>arnegatzaile</b> ziren gizon eta emakumezkoek...»	(87)
<b>arre</b> 'iluna, nabarra'	«...hiltzera dihoazenen aurpegi zurbilak azken aldikotz argitzen dituztenetakoa izanen zen goiz <b>arreak</b> ...»	(18)
<b>artegatasun</b> 'urduritasuna'	«Theresaren <b>artegatasunaz</b> ohartu zen...»	(26)
<b>artizar</b> 'goiztiri-iluntzeko izarra, Ven	«...gau ilunean ageri den <b>artizarra</b> ...»	(43)
<b>artoski</b> 'arduraz'	«...ikas ezan haren esana egiten enea eginen dunan bezain <b>artoski</b> .»	(48)
<b>ausaz</b> 'agian, apika, beharbada'	«...nahiz harako gogorik guti zedukan <b>ausaz</b> neskatoak.»	(45)
<b>aztal</b> 'azala'	«...noizetik noizera, gar luzeago batek haren <b>aztal</b> ezitia miazkatuz, aldera inguratzen zen hats-behera ito batekin.»	(13)




<b>baiko</b> 'gabeko'	«Hura itzali <b>baiko</b> liburua utzi zuen eta hasi zen berriz ere gogoetetzen.»	(48)
<b>bakun</b> 'ximplea'	«...berak ez zituen <b>bakunak</b> besteak baino gehiago ez gutxiago erdeinatzen...»	(16)
<b>begitartea zapuztu</b> 'haserre aurpegia jarri'	«Halarik ere <b>begitartea zapuztu</b> zitzaion...»	(37)
<b>beharrune</b> 'beharrizana, zeregina'	«...bazedukan <b>beharrune</b> bat zorion ozar hori delako ezagunei —ahaide, adiskide edo edozein laguni— erakustekotz...»	(57)
<b>bekaizkeria</b> 'ondamua, inbidia'	«Baina <b>bekaizkeriak</b> osk egin zion bihotzean, bet-betan otu zitzaionalarik arrotzak izanen zirela haurraren irakasle.»	(30)
<b>bet-betan</b> 'bat-batean'	«Baina bekaizkeriak osk egin zion bihotzean, <b>bet-betan</b> otu zitzaionalarik arrotzak izanen zirela haurraren irakasle.»	(30)
<b>betegintzarre</b> 'perfekzioa'	«...amets orok loratze eta <b>betegintzarre</b> duen ugarte dohatsuetaraino...»	(11)
<b>bide</b> 'antza, dirudienez, agi denez'	«Bai, noski, bat edo beste izan <b>bide</b> da, pentsatzen zuen...»	(14)
<b>biharamun</b> 'hurrengo eguna'	«... <b>biharamuneko</b> sei orduen aldera telefonatuko zuela.»	(16)
<b>bil</b> 'gorputz azaleko ilea'	«Isabelari zerion usain okaztagarria ahora zetorkion, haren <b>bil</b> oetatik...»	(38)
<b>damu izan</b> 'damututa egon, garbai izan'	« <b>Damu</b> zuen joatera utzi zuelakotz...»	(45)
<b>den mendren</b> 'ahalik eta gutxien'	«...eta otseina, sorbaldak <b>den mendren</b> eraikiz alde egitera zoalarik, gaineratu zuen...»	(48)
<b>doi-doi</b> 'ozta-ozta'	«...jendeekin jendakin, gizartean gizabidetsuki, erdeinu apur bat <b>doi-doi</b> erakutsiz.»	(14)
<b>durundatu</b> 'durundioa sortu,oihartzundu'	«Begiak erdi itxita, uzten zuen musika jainkozko hori are <b>durundatzera</b> ...»	(30)
<b>egonarri</b> 'eroapena, pazientzia'	«...erantzun zion, bere buruari oraindik gogor eginaz <b>egonarria</b> gordetzearren.»	(39)
<b>egotzi</b> 'zuzendu, bota, jaurti'	«...konturatu zen pekoz beteriko begiradak <b>egozten</b> zizkiola, epaixka...»	(15)
<b>eiki</b> 'baiki, egiazki'	«...oraindik ez gura zuen bezainbat, <b>eiki</b> , baina ezagutza hori gehituz joanen zen egunero...»	(28)
<b>ele</b> 'hitza, berba'	«Zer izanen ziren Theresaren lehengo <b>eleak</b> ...»	(28)
<b>elorri</b> 'arantza'	«Baina Isabela izan zen <b>elorrria</b> bere haragitik kendu ahal izan zuenez gero...»	(46)
<b>enda</b> 'arraza, askazia'	«...beltzaranduko zen urrezkotasun hori guztia, <b>endaren</b> halabeharraz...»	(23)
<b>epaixka</b> 'isilean'	«...konturatu zen pekoz beteriko begiradak egozten zizkiola, <b>epaixka</b> ...»	(15)
<b>eragabetu</b> 'baliogabetu'	«...hain akats gabekoa zen ereti hori ilundu eta <b>eragabetu</b> ...»	(32)
<b>eragotzi</b> 'ez utzi egiten, debekatu'	«...ezpain meheak tinkaturik eta mutiri, etxeko jaunak <b>eragotzen</b> ziolako...»	(11)
<b>erasia</b> 'protesta/berriketa, marmara'	«Gizona haren <b>erasiaren</b> aiduru zen...»	(39)
<b>erasiaka</b> 'negarretan, protestaka'	«...ziotsan bihotzak <b>erasiaka</b> ...»	(32)




<b>erdeinatu</b> 'gaitzetsi,arbuaiatu,mesprezatu'	«...ez zituen haren gogoa eta bihotza baizik <b>erdeinatzen</b> ...»	(36)
<b>erdeinu</b> 'mesprezua'	«...jendeekin jendakin, gizartean gizabidetsuki, <b>erdeinu</b> apur bat doi-doi erakutsiz.»	(14)
<b>ereti</b> 'unea, liparra, momentua'	«Elkarri so egon ziren <b>ereti</b> labor hartan, hauraren begi nabar zohargiak harenei erantsiak gelditu zitzaizkien.»	(13)
<b>erraustatu</b> 'tindatu, koloreztatu'	«...xinpart batek (...) urrez <b>erraustatzen</b> zituen haren ile-sorta barneko ilun-nabarrean gorrixka ageri zirenak...»	(13)
<b>esetsi</b> 'eraso, oldartu'	«...eta gizonak <b>esetsi</b> zion zorrotz samar...»	(31)
<b>esteta</b> 'estetikaz ikasia,edertasun zalea'	«...haren irriki zoroa (...) <b>esteta</b> baten solas alferra baizik izan ez zelako hasieran.»	(13)
<b>estonamendu</b> 'harridura, txundidura'	«...hala ere <b>estonamendu</b> piska bat erakutsiz, agindu zion...»	(48)
<b>estonatu</b> 'txunditu, harritu'	«“Zer da?” , galdegin zuen <b>estonaturik</b> .»	(39)
<b>ezain</b> 'itsusia'	«Orain, aldiz, berak zuen gorputz <b>ezain</b> horren menpeko izan behar...»	(38)
<b>ezinagoan</b> 'ezin gehiago'	«...kirestasunez beterik <b>ezinagoan</b> ...»	(14)
<b>ezkutapena</b> 'sekretua'	«...baina zeini ausartuko zen bere <b>ezkutapena</b> salatzeraz?»	(47)
<b>gar</b> 'sugarra, sua'	« <b>Gar</b> biziak xinpartak zerabilzkiten sutegian...»	(12)
<b>garbaia</b> 'damua, pena'	« <b>Garbai</b> zedukan gizonak deusik salatu gabe joatera utzi zuelakotz goizean.»	(49)
<b>garden</b> 'garbi-garbia, transparentea'	«...haren irriki zoroa (...) ur <b>garden</b> ozpila, itur-buruan agortuko zitzaiola, esteta baten solas alferra baizik ez zelako hasieran.»	(13)
<b>gartsu</b> 'kementsua'	«...bere aio <b>gartsuak</b> gogoa errerik ametsetan iragan zituen azkenengo egun haietan.»	(15)
<b>gertu</b> 'prestatu, prest egon'	«...bera ere ohera joateko <b>gertu</b> zen.»	(19)
<b>gibel asmoa</b> 'ezkutuko asmoa, okerra'	«...eragozpenik eta <b>gibel asmorik</b> gabe, inor so egile gabe...»	(46)
<b>giza-saldoa</b> 'gizaki multzoa'	«...hura ez zen <b>giza-saldoaren</b> aitzin-eritzietara makurtuko.»	(14)
<b>gizabidetsuki</b> 'errespetuz'	«...jendeekin jendakin, gizartean <b>gizabidetsuki</b> , erdeinu apur bat doi-doi erakutsiz.»	(14)
<b>godalet</b> 'edalontzia, basoa'	«Baina gizonak irribarre batekin esan zion <b>godalet</b> bat bete ziezon ...»	(15)
<b>guren</b> 'preziatuena, maiteena'	«...bere amets <b>gurenarekin</b> bizi izan balitz...»	(35)
<b>harro</b> 'tente, zuzen'	«Ilea <b>harro</b> , begien ñirñira dirdaitsuegi, bularra jori...»	(34)
<b>hats-behera</b> 'arnas botatzea, expirazioa'	«...noizetik noizera, gar luzeago batek haren aztal eztia miazkatuz, aldera inguratzen zen <b>hats-behera</b> ito batekin.»	(13)
<b>haur-izu</b> 'ume-ikara, beldurra'	«...hire begiek ez lieukedanate ene bihotz-min gozoa den <b>haur- izu</b> urragarri hori erakutsiko...»	(31)
<b>hautetsi</b> 'hautatua, aukeratu(tako)a'	«...besteak bezalako ez ziren <b>hautetsi</b> haiek!»	(15)




<b>herabeti</b> 'lotsatia, lotsakorra'	«...so egin zion aita besoetakoari irribarre <b>herabeti</b> batekin.»	(13)
<b>hezerik</b> 'bustirik'	«...eta Theresaren begiak, <b>hezerik</b> ageri zirenak...»	(31)
<b>higikunde</b> 'mugimendua'	«Zorionez anderea ez zen konturatu atzekaldera hasi zuen <b>higikundeaz</b> ...»	(36)
<b>hildura</b> 'mortifikazio'	«Hortarakotz, edozein humilazio, zernahi <b>hildura</b> jasatera gertu zen...»	(25)
<b>hits</b> 'tristea'	«Baina ez zen ordu, gogorapen <b>hits</b> horiek ala zitzan...»	(23)
<b>igurika</b> 'zain, itxaroten'	«Maltzurkeria xiki horrek alaiturik, irri egin zuen, eta Theresak burua eraiki zuen, <b>igurika</b> .»	(31)
<b>iguriki</b> 'itxaron'	«Minuta bakoitzeko hirurogei sekonta <b>iguriki</b> behar...»	(19)
<b>ihakin</b> 'iseka, trufa, burla'	«Poz gaizto batekin haren mintzoaren <b>ihakina</b> egin zuen...»	(41)
<b>ihardespen</b> 'erantzun'	«...irribarre isil, itzurkor horrek edozein <b>ihardespen</b> balio zuen...»	(28)
<b>ikola</b> 'ahula'	«...gorputz <b>ikol</b> horretatik atsegin apur bat atera nahirik...»	(36)
<b>ilki</b> 'irten, atera, urten'	«...neskamea bere sukaldetik <b>ilki</b> eta eskailera sarbidean agertu zen...»	(19)
<b>ilortu</b> 'fruitu gabea, porrot egina'	«...bere zorion <b>ilortuen</b> intziriak, bere atsegin okaztagarrien oroipenak ohiltzegtatik edaten jarraiki zen, edonoren agerlean.»	(17)
<b>inguratu</b> 'desbideratu'	«...eta, nardaz beterik, soa <b>inguratu</b> zuen haren aldetik.»	(34)
<b>intzirika</b> 'xilioka, garrasika'	«...parkeko zuhaitz ilunak (...) <b>intzirika</b> ari ziren...»	(11)
<b>irkaitz</b> 'irribarrea, imintzioa'	«...bere aurpegi maltzurra <b>irkaitzez</b> erakusten zuelarik...»	(11)
<b>irriki</b> 'desio, nahi'	«...haren <b>irriki</b> zoroa (...) ur garden ozpila, itur-buruan agortuko zitzaiola, esteta baten solas alferra baizik ez zelako hasieran.»	(13)
<b>irritsu</b> 'irrikaz, desioz dagoena'	«Begiak selaura jasorik, uzten zuen emakume <b>irritsua</b> haragi zainildua laztan ziezon...»	(38)
<b>itunben</b> 'ituna, tratua, akordioa'	«Eta berehala,Theresa etorri zitzaion aldamenera, <b>itunben</b> baten ondotik izan bailitzakeen...»	(29)
<b>itzuri</b> 'ekidin, saihestu, alboratu'	«Isabela <b>itzur</b> ez zitekeen gaitza zenez gero...»	(33)
<b>itzurkor</b> 'iheskorra'	«...eta irribarre isil, <b>itzurkor</b> horrek edozein ihardespen balio zuen...»	(28)
<b>izarniatu</b> 'distiratsu'	«Gauerdiko isiltasun hiltunean, gaueko ilunpe <b>izarniatuan</b> ...»	(27)
<b>jargi</b> 'jezarlekua, eserlekua'	«Bere besodun <b>jargian</b> eseri zen...»	(29)
<b>jauzi</b> 'salto egin'	«Txinpartak ke-bidean gora <b>jauzten</b> ziren, sorgin ongile batek deituriko pamerial alaiak irudi.»	(13)
<b>jendakin</b> 'soziabilea, lagunkoia'	«...jendeekin <b>jendakin</b> , gizartean gizabidetsuki, erdeinu apur bat doi-doi erakutsiz.»	(14)
<b>jin</b> 'etorri'	«...hobe zela momentuko inor ez lekion <b>jin</b> ikustera, bakantzaz joatekotan baitzegoen.»	(48)



<b>jori</b> 'betea, oparoa'	«Ilea harro, begien <b>nirñira</b> dirdaitsuegi, bularra <b>jori</b> »	(34)
<b>kirestasun</b> 'garraztasuna, mingostasuna'	«... <b>kirestasunez</b> beterik ezinagoan...»	(14)
<b>koldar</b> 'beldurtia'	«Ez <b>koldar</b> zelako, agian.»	(12)
<b>kordoka jarri</b> 'zabuka, tanbaleatzen'	«...hor zegoen Theresa, <b>kordoka jarririk</b> atea ustekabea ireki ziotelako.»	(39)
<b>kuttun</b> 'lagun mina'	«Bazekien Isabela neskamearen <b>kuttuna</b> zela...»	(16)
<b>lagatu</b> 'utzi'	«Geroarekiko kezka gerorako <b>lagatuz</b> ...»	(29)
<b>lagun hurko</b> 'norberaren hurrengoa'	«... <b>lagun hurkoari</b> min egiteko jakintzan...»	(47)
<b>lain</b> 'beste, adina'	«...edonori aurre egiteko <b>lain</b> izanen litzateke, noski...»	(12)
<b>leinuru</b> 'distira, izpia'	«...baina itxaropen- <b>leinuru</b> bat hasi zen haietan argitzen...»	(43)
<b>malgu</b> 'fina, biguina'	«...baina garbiro ikusten zuen haren aurpegi ertz <b>malgua</b> ...»	(20)
<b>malgurtu</b> 'plegatu'	«...gerri meharra haren besoan <b>malgurturik</b> landare gazte bat izan bailitzakeen.»	(32)
<b>mardul</b> 'gogorra'	«...eta haren izterrak, <b>mardul</b> eta fresko zirenak...»	(22)
<b>matrail</b> 'mazela'	«...haren aurpegi-ertz malgua, <b>matrailaren</b> marra ezia.»	(20)
<b>mehar</b> 'mehea, estua'	«...gerri <b>meharra</b> haren besoan malgurturik landare gazte bat izan bailitzakeen.»	(32)
<b>men egin</b> 'onartu'	« <b>Men egin</b> beharko zion Isabelak opariñari, berak egin zion bezala!»	(28)
<b>mendre</b> 'ahula'	«...haur baten gorpu <b>mendre</b> , bere ahultasunean hain ukigarria ...»	(38)
<b>muker</b> 'zaputza'	«...“haur ergel, <b>muker</b> eta biziotsu bat baizik ez duk...»	(39)
<b>munta</b> 'garrantzi, ardura'	«Baina ez zuen <b>muntarik</b> zer susmatu edo zer jakin zuen neskame zintzo hark.»	(15)
<b>mutiri</b> 'lotsagabeki'	«...ezpain meheak tinkaturik eta <b>mutiri</b> , etxeko jaunak eragozten ziolako...»	(11)
<b>nabar</b> 'iluna'	«Elkarri so egon ziren ereti labur hartan, hauraren begi <b>nabar</b> zohargiak harenei erantsiak gelditu zitzaizkien...»	(13)
<b>narda</b> 'nazka, biguina'	«Begiratzen ziolarik, zakur-eme bat orkara gogora erazten zion senargaiari eta, <b>nardaz</b> beterik, soa inguratu zuen haren aldetik.»	(34)
<b>nirñira</b> 'distira'	«Ilea harro, begien <b>nirñira</b> dirdaitsuegi, bularra jori...»	(34)
<b>oguz</b> 'gogoz, borondatez'	«Berak eta bere <b>oguz</b> zuen aukeratu, orain urtebete edo zela...»	(34)
<b>ohaide</b> 'ohe laguna, maitalea'	« <b>Ohaidetzat</b> izan nahi zuen...»	(34)
<b>ohildu</b> 'bota, kanporatu'	«...bere zorion ilortuen intzirriak, bere atsegin okaztagarrien oroipenak <b>ohiltzeagatik</b> edaten jarraiki zen, edonoren agerrean.»	(17)




<b>oinaze</b> 'pairamena, sufrimendua'	«...haren <b>oinazea</b> biluzik eta ohe gainean zetzalarik...»	(46)
<b>oixtion</b> 'arestian, lehen'	«Ez hola, <b>oixtion</b> bezala!»	(24)
<b>okaztagarri</b> 'nazkagarria'	«...bere zorion ilortuen intziriak, bere atsegin <b>okaztagarrien</b> oroipenak ohiltzeagatik edaten jarraiki zen, edonoren agerrean.»	(17)
<b>oldar</b> 'inpetua'	«...ez zedukan berezko olde ez <b>oldarrik</b> izateko zuzenik...»	(21)
<b>olde</b> 'gogoa'	«...ez zedukan berezko <b>olde</b> ez oldarrik izateko zuzenik...»	(21)
<b>ondikotz</b> 'zoritzarrez'	«...pattarra burmuina sorgortzen hasia zitzaion eta pentsamendu minak sorgortzen — azaletik baizik ez, <b>ondikotz!</b> »	(16)
<b>opariña</b> 'oparia'	«Men egin beharko zion Isabelak <b>opariñari</b> , berak egin zion bezala!»	(28)
<b>orbandu</b> 'zikindu'	«bere haur emetasuna <b>orbandu</b> gaberik zedukalarik...»	(23)
<b>ordo</b> 'laua'	«...hain sotilki zekarren sabeltxo <b>ordo</b> horri...»	(22)
<b>orkara</b> 'ar eske dabilen emea, zuzara'	«Begiratzen ziolarik, zakur eme bat <b>orkara</b> gogora erazten zion senargaiari eta, nardaz beterik, soa inguratu zuen haren aldetik.»	(34)
<b>osk egin</b> 'haginka'	«Baina bekaizkeriak <b>osk egin</b> zion bihotzean, bet-betan otu zi- tzaiolarik arrotzak izanen zirela haurraren irakasle.»	(30)
<b>otapur</b> 'ogi puska'	«...zakur batena irudi norbaitek <b>otapur</b> bat botatzen dionean...»	(37)
<b>otsein</b> 'neskamea, zerbitzaria'	«...eta askotan zinkurina egiten zion neskameak, aspaldiko <b>otsein</b> batek duen familiaritate zaputzarekin...»	(12)
<b>otu</b> 'bururatu, agitu'	«Baina bekaizkeriak osk egin zion bihotzean, bet-betan <b>otu</b> zitzaiolarik arrotzak izanen zirela haurraren irakasle.»	(30)
<b>otzanki</b> 'apalki'	«Gosaria ekarri zion neskameari agurra <b>otzanki</b> bihurtu zion...»	(28)
<b>ozpil</b> 'freskoa'	«...haren irriki zoroa (...) ur garden <b>ozpila</b> , itur-buruan agortuko zitzaiola, esteta baten solas alferra baizik ez zelako hasieran.»	(13)
<b>pairu handiko</b> 'jasankorra, eroapen handikoa'	«Hain <b>pairu handikoa</b> izan zitekeenik ez zuen esperantza...»	(35)
<b>pamerial</b> 'iratxoa'	«Txinpartak ke-bidean gora jauzten ziren, sorgin ongile batek deituriko <b>pamerial</b> alaiak irudi.»	(13)
<b>pattar</b> 'likorea'	«... <b>pattarra</b> burmuinak berotzen hasia zitzaion eta pentsamendu minak sorgortzen, azaletik baizik ez ondikotz!»	(16)
<b>peko</b> 'azpikeria'	«...konturatu zen <b>pekoz</b> beteriko begiradak egozten zizkiola, epaixka...»	(15)
<b>perilgarri</b> 'arriskugarria'	«...hala ere, <b>perilgarri</b> baita beti emakume iraindu bat ...»	(47)
<b>pozarren</b> 'poz-pozik, pozez beterik'	«Haurrak ere irri egin zuen, <b>pozarren</b> ...»	(32)
<b>saihetsarazi</b> 'atzeratzen erazi, itzulbidean	«...ez nau hark <b>saihetsaraziko</b> , pentsatzen zuen haserreturik.»	(20)
<b>sarri</b> 'askotan, maiz'	«...egoten baitziren <b>sarri</b> bera eta alaba besoetakoa...»	(43)
<b>sarri</b> 'laster'	«...bazkaltzeko tenorea izanen zuten <b>sarri</b> ...»	(32)



<b>selau</b> 'goia, sabaia'	«Begiak <b>selaura</b> jasorik, uzten zuen emakume irrutsua haragi zainildua laztan ziezon...»	(38)
<b>so</b> 'begirada'	«...eta, nardaz beterik, <b>soa</b> inguratu zuen haren aldetik.»	(34)
<b>so egin</b> 'behatu, begiratu'	«... <b>so egin</b> zion aita besoetakoari irribarre herabeti batekin.»	(13)
<b>solas</b> 'hizketa'	«...haren irriki zoroa (...) esteta baten <b>solas</b> alferra baizik izan ez zelako hasieran.»	(13)
<b>sorgortu</b> 'ezindu, oztopatu'	«...pattarra burmuinak berotzen hasia zitzaion eta pentsamendu minak <b>sorgortzen</b> — azaletik baizik ez, ondikotz!»	(16)
<b>sotilki</b> 'dotore, eder'	«...hain <b>sotilki</b> zekarren sabeltxo ordo horri...»	(22)
<b>tenorea</b> 'momentua, denbora, ordua'	«...bazkaltzeko <b>tenorea</b> izanzen zuten sarri...»	(32)
<b>tinkatu</b> 'lotu, eutsi'	«...haur biluziaren gorputza bereari kontra sendituz, amoltsuki <b>tinkatu</b> zuen...»	(24)
<b>tinkaturik</b> 'itxita, loturik'	«...ezpain meheak <b>tinkaturik</b> eta mutiri, etxeko jaunak eragozten ziolako...»	(11)
<b>uko egin</b> 'ez onartu, ukatu, ezetsi'	«...bere buruaren aizun-irudiari <b>uko ez egitearren.</b> »	(12)
<b>urdanga</b> 'zikina, emagaldua'	«... <b>urdanga</b> xiki hori dela kausa!'''»	(42)
<b>urkabe bihurtu</b> 'mehatxu bihurtu'	«...berriz ere <b>urkabe bihurtzen</b> ziren zuhaitzok, zut, gora...»	(11)
<b>urragarri</b> 'lazgarri, mingarri, deitoragarri'	«Gogorapen <b>urragarri</b> horrek haren gautik infernu bat egin ez liezontzat.»	(19)
<b>urtu</b> 'desagertu'	«...hala non eguneango pentsamendu kiratsak oro <b>urtu</b> baitzitzaizkion...»	(26)
<b>xinpart</b> 'xinda, airera suzko zatitxoa'	«Gar bizek <b>xinpartak</b> zerabilzkiten sutegian...»	(12)
<b>zainbera</b> 'zaintzeko erraza, esanekoa'	« <b>Zainbera</b> zen haurra...»	(18)
<b>zainildu</b> 'biguina, flazidoa'	«Begiak selaura jasorik, uzten zion emakume irrutsua haragi <b>zainildua</b> laztan ziezon...»	(38)
<b>zantar</b> 'itsusia, zikina'	«Zertarako bakezko azken minuta horiek nahastu nahi zizkien atso <b>zantarrak</b> ...»	(33)
<b>zaputz</b> 'nazkantea'	«...eta askotan zinkurina egiten zion neskameak, aspaldiko otsein batek duen familiaritate <b>zaputzarekin</b> ...»	(12)
<b>zelatan egon</b> 'kukuka aritu'	«...pentsatzea gure <b>zelatan egon</b> dela hor...»	(39)
<b>zindo</b> 'zuzen / sendo, osasuntsu'	«...beharbada gutxien susma daitekeen gizon zintzo, <b>zindo</b> , jainkotiar bat...»	(14)
<b>zinkurin</b> 'kexua'	«...eta askotan <b>zinkurina</b> egiten zion neskameak, aspaldiko otsein batek duen familiaritate zaputzarekin...»	(12)
<b>zio</b> 'motiboa, arrazoia'	«... <b>zio</b> onak ekarriko zituen noski bere nahiak lortzeko: haziera, eskola...»	(21)
<b>zitzailu</b> 'aulki mota bat'	«Sutondoan, <b>zitzailuan</b> jarririk zegoen Theresa...»	(13)
<b>zohargi</b> 'distiratsua'	«Elkarri so egon ziren ereti labur hartan, haurraren begi nabar <b>zohargiak</b> harenei erantsiak gelditu zitzaizkien...»	(13)





<b>zori</b> 'zortea, fatua'	«...bere bakartasunean iguriki behar zuen zeruak edo <b>zoriak</b> eskainiko zion abagunea...»	(35)
<b>zurbil</b> 'kolorgea, zuriska'	«...hiltzera dihoazenen aurpegi <b>zurbilak</b> azken aldikotz argitzen dituztenetakoa izanen zen goiz arreak...»	(18)
<b>zurratu</b> 'astindu, jipoitu'	« <b>Zurratuz</b> hilen zuen gizonak, bet-betan gogorapen izugarri bat otu ez balitzaio.»	(42)
<b>zurrun</b> 'gogortua'	«... nola senar jeloskor batek bere emaztea hil eta honen ohaidea <b>zurrunari</b> bizirik esegi zuen...»	(38)
<b>zuzen</b> 'eskubide'	«...ez zedukan berezko olde ez oldarrik izateko <b>zuzenik</b> ...»	(21)